



Euskal Herria ezagutuz

## LARRAUN (NAFARROA)

# Mendukilo, Aralarren bihotzera sarbidea

Hainbat ikerlariaren hitzetan lur azpia ikertzeke geratzen den azken kontinentea da. Gaurkoan Mendukilo leizea bisitatuko dugu, Aralarreko mendilerroaren magalean, Larraungo (Nafarroa) bailaran. Lur azpiko altxorrak nahi duen orori erakusteko asmoz, 2005ean zabaldu zuten mundu berezi horretan murgiltzeko sarbidea.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

Argazkiak: Mendukiloko Kobazuloa

HERENSUGEAREN gotorlekurainoko sarbideak 350 metro ditu; bost gelatan dago banatuta, baina egun, fauna eta haitzuloaren kalitatea zaintzeko asmoz, horietako hiru daude zabalik. Ordubete eta erdiko bisitan eguzkiak argiztatutako Artzainzulo gela, eta eguzkitik urrun dauden Laminosin eta Herensugearen gotorlekua –hogei metroko altuera eta 60 metroko luzera– ezagutzeko parada izango du bisitariak. Bisitetan ikusten ez badira ere beste bi gela baditu, esan bezala, Mendukilok; bolumen handi-

ko Gerlariaren gela, eta Intxixuen gotorlekua, beheranzko tutu estua. Horiez gain, Laminosin gelak badu bisitatzen ez den leku bat ere. Baina bisitariak ezagutuko dituen hiru gelek zur eta lur utziko dute, ziur.

Formazio geologiko askok, eta estalaktita eta estalagmitek, uraren bidea erakutsiko diote ikusleari. Batzuk hilda daude, jada urak bertan lanik egiten ez duelako, besteak aldiz bizi-bizirik. Guztiak gertutik ikusten dira, eta horien berezitasunak sortzen ditu lehen harridurak.

### Herensugea bidelagun

Horrez gain, kobarekin zerikusia duten kondairak aipatuko dizkigute. Aralarren elezaharreko herensugearen istorioak, konparazio baterako, zer esan handia emango du bidean zehar. Haren ahoa dirudien formazioa baita protagonistetako bat.

Bisita guztia pasabide baten bitartez, argiztapen dinamikoaz lagunduta egiten da, eta eskaileretan gora eta beheara arituta kobaren hainbat sekretu ezagutuko ditu bisitariak. Lur azpiak berez dituen

**SAKANA**  
Horren GERTU horren ERRAZ

**Sakana Urbasa**  
Landa Turismoa  
Turismo Rural

[www.sakanaurbasa.com](http://www.sakanaurbasa.com)

Bidelagun  
Sakanako landetxeen elkarte

Map showing locations: Aralar, Donostia San Sebastián, Lizarrako Estela, Andia, Nafarroa, Urbasa, and other towns.



Lerro hauen gainean, Laminosin gela. Ezkerrean, Herensugearen gotorlekuko txoko bat.

sun. Horrez gain, milioika urtean urak bere lana nola egin duen ere ulertzen da bidean”, dio bisitari batek.

Lasaitasun horretatik ihesi, abentura bila dabiltzanak badute lekua Mendukilon. Soka lodiz lagunduta, kobaren bihotzetik haratago, hes-teetara ere iritsi ahalko baitira, koban behera 70 metro eginaz. Lurrazaletik hain urrun dagoen altuera horretara jaitsita, kaskoetan dituzten argiak itzalita, isiltasuna bilatzen dute une batez abentura maite duten horiek; hala, kobazulo-aren barrenak entzun eta bizitzeko aukera izaten baitute. ■

zailtasunak erraztuta, nahi duen orok egin ahalko du koban barrena bidea. Bisitarien aurpegieta ikusten da lurraren azpiko sekretuek sortzen duten zirrara. Fami-

liak dira nagusi, eta haurren begiek islatzen dute egokien koba hauen handitasuna. “Mendi barrualde hori zer den oso ongi sentitzen da; zer den iluntasuna, eta zer lasaita-

### Informazioa

[www.mendukilo.com](http://www.mendukilo.com), edota 948 396 095 telefonoan

**ANZIZAR**  
CARAVANING

**BEASAIN**

☎ 943 88 17 00  
[anzizar@anzizar.com](mailto:anzizar@anzizar.com) - [www.anzizar.com](http://www.anzizar.com)

- Llantak
- Aire egokituak
- Aparkatze sistemak
- Elurretako kateak
- Kafeterak
- Multimedia

**SaiazGetaria**  
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA  
[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) • Tel.: 943 140 143